



**2023KO MAIATZAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren hogeita bostean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Eneritz Miranda Muxika, Felix Urkola Iriarte, Beni Goñi Padura, Iñaki Estensoro Sarasola, Joxemai Ormazabal Sukia, Josu Sarriegi Zumarraga, Marije Insausti Onda, Maialen Amundarain Irizar eta Ion Garmendia Iturbe.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2023ko martxoaren 30ean egindako ohiko bilkurako akta, 2023ko maiatzaren 2an egindako ez-ohiko bilkurako akta eta 2023ko maiatzaren 4an egindako ez-ohiko bilkurako akta, idatzita dauden moduan onartu direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

**III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-
TEA .-**

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharrezkoak eta tramiteei.



Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du abstenitu egingo direla, kreditu aldaketa honen kopuru garrantzitsuena kiroldegiaren obrari dagokiolako.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta eta 5 abstentzioz (EH Bildu), honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|----------------------------|--|---------------------|
| II | Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 35.500,00 € |
| VI | Inbertsio errealak | 274.000,00 € |
| VII | Kapital-transferentziak | 3.000,00 € |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 312.500,00 € |

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|-------------------|---------------------|
| VIII | Finantza aktiboak | 312.500,00 € |
| GUZTIRA | | 312.500,00 € |

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.





2022ko ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuotarako Batzorde Bereziak 2023ko apirilaren 20an egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2023ko apirilaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 baliodun egunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, 2022ko ekitaldiko kontu orokorra onartu egin du.

Kontu Orokor honek udalaren 2022ko Kontu Orokorra eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2022ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

V.- UDAL INBENTARIOAREN EGUNERAKETA.-

2022ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa, 2022. urtean zehar izandako aldaketak barne hartzen dituena, onartzea proposatu dio Ogasun Batzordeak Udalbatzari.

2022ko abenduaren 31n, Udal Inbentarioa osatzen duten elementu guztien erosketa balioa 40.510.012,49 €-koa zen, amortizazio pilatua 14.790.454,13 €-koa eta kontabilitate balioa 25.719.558,36 €-koa.

Osoko Bilurako partaide guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, proposamena aho batez onartu da.

VI.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN 2. ALDAKETA ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Osoko Bilkurak, 2023-05-04an egindako bilkuran, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen egitasmoa, aldaketak sartuta, bigarren aldiz idazteko baimena ematea erabaki zuen; obrak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 4.035.273,63 eurotan, gehi BEZ.

Proposatu diren aldaketak, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian jasota ez daudenak, kontratuaren lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortu diren inguruabarrek eragindakoak izan dira alde batetik, eta bestetik hasieran kontratatutakoez gain beste obra batzuk gehitu behar izateak eragindakoak. Hain zuzen ere, obra-zuzendaritza zerbitzua daraman Jovino Martinez Sierrak burutu duen txostenaren bidez egindako eskaritik.

2023ko maiatzaren 19an, ebazpena eman zen aldatutako bigarren egitasmoa onesteko eta kontratistari entzunaldia egiteko epea eman zitzaion.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak ez du alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorriz, obra-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203., 205. eta 242.4. artikuluetan ezarritakoak.

Kreditu aldaketa egitea beharrezkoa da, kontu-hartzaitzak adierazi duenaren arabera ez baitago nahikoa kreditu obra hori egiteko udal aurrekontuko gastuen dagokion kontu-sailean. Beraz kreditu aldaketa bat egitea eskatzen du honek. Eta kontratu aldaketa honetarako beharrezkoa den saldoa egon dadin, kontzeptu hori barne duen kreditu aldaketa hori honen aurreko puntuan onartu du osoko bilkurak.

Era berean, udal idazkariak igorritako aldeko txostena ere badago.

Bigarren aldaketa honen zenbateko likidua 221.378,83 eurokoa gehi BEZ da. Lehen aldaketa berriz 366.694,50 eurokoa gehi BEZ izan zen. Bien batura 588.073.33 eurokoa gehi BEZ dela kontuan hartuta, ez da kontratuaren hasierako prezioaren %20 baino gehiago, BEZik gabe. Beraz, kontratistarentzat bete beharrezkoa da.

Proposatutako aldaketaren ondorioz, kontratuaren hasierako prezioa horrela aldatzen da: %5,486. Beraz, behin betiko bermea zenbateko horri doitu behar zaio, aldatutako prezioarekin dagokion proportzioa izan dezan. Hona hemen bermearen zenbatekoa: 11.068,94 euro (SPKL, 109.3. artikulua).

Aldaketarako espedientea onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Osoko Bilkurak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du gai honetan abstenitzen jarraituko dutela, ez dutelako proiektuarekin bat egiten. Honez gain esan du kiroldegiaren obra egin aurretik planifikazioak hobeto egin behar zirela, eta hainbesteko gastutan sartu aurretik beste urrats batzuk eman behar zirela. Eta haiek ez egin izanagatik ari direla abstenitzen.

Alkateak erantzun dio beraiek baiezko botoa emango dutela, uste dutelako planifikazioa nonbait ondo egin bazen, kiroldegian izan zela. Oso denbora luzez eta asko eztabaidatutako proiektu baten ondorioa dela.

Hau guztia honela, eta gaia hirigintza, etxebizitza eta zerbitzuak eta ogasun batzordeetan informatuta izan ondoren, osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzioz (EH Bildu), akordio hauek hartu ditu:

LEHENENGOA. Honako kontratu hau bigarren aldiz aldatzeko espedientea onestea: "Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 Faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak" burutzeko obrak egiteko dena, Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresari adjudikatutakoa hasierako prezioa 4.035.273,63 euro gehi BEZa direlarik. Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko proiektuaren bigarren aldatutako egitasmoari jarraituta egingo da; igerileku berriaren eraikinean ura sartzeko konpondu eta saihestean, lurra mugitzeko eta hondeatzeko lan horietan bertan azalduriko afekzioen konponketan eta erabiltzaileen eta obren fluxuen bereizketa behar bezala kudeatzen dela bermatzean datza, eta kontratuaren aldaketa 221.378,83 eurokoa gehi BEZ izango da.



LAZKAORO
UDALA



**LAZKAOKO
UDALA**

BIGARRENA. Aldaketa honen ondorioz, obrak betetzeko epea ez da handituko, beraz kontratuaren epeak ez du aldaketarik jasango.

HIRUGARRENA. 221.378,83 euro gehi BEZeko gastua xedatzea, indarreko udal-aurrekontuaren dagokien partidetan zorduntzeko.

LAUGARRENA. Ebazpen hau kontratistari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, behin betiko bermea 11.068,94 euroekin gehitzeko eta kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurtsu jar dezakeen.

BOSGARRENA. Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



**LAZKAOKO
UDALA**

07/05
2018
11
13:00